ZUIN
INFORMAZIO AGENDA
LAUDIOKO UDALA
2021

06/1

INFO-AGENDA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO
2021





# ELLAKURIKO UDAL IGERILEKUAK ETA KIROL IKASTAROAK

# Piscinas municipales de Ellakuri y cursillos deportivos













## Laudiok ur beltzen sarea berritzeko lanak hasiko ditu Landaluzen

Landaluze auzoan ur beltzen sarea erabat berritzeko proiektuaren lehen fasea hasi da. Esku-hartze horrek 162.506,11 euroko aurrekontua izango du guztira, eta lau hilabetez luzatzea aurreikusten da.

Zumalakarregi, Baias eta Landaluze arteko semaforoz araututako bidegurutzetik egingo da obra. Horretarako, Larrazabalgo noranzkoan, jaitsierako erreian, Laudiorako bidea hartuko du galtzadak, eraiki beharreko putzu berrien arteko tarteetan.

**Trafikoari eragitea**
Horren ondorioz, obra horiek ibilgailuen zirkulazioa aldatuko dute Zumalakarregiko bidegurutzetik jaisteko eta igotzeko erreietan, eta, egoera hori arautu ahal izateko, semaforo bidezko kontrol bat prestatuko da.

## Laudio inicia las obras para renovar la red de aguas fecales en Landaluze

El barrio de Landaluze acoge la primera fase del proyecto que permitirá renovar por completo su red de aguas fecales. Una intervención que cuenta con un presupuesto total de 162.506,11 euros y que está prevista se prolongue durante unos cuatro meses.

La obra se va a desarrollar desde el cruce regulado por semáforos entre Zumalakarregi, Baias y Landaluze. Para ello, se ocupará la calzada en el carril de bajada, sentido Larrazabal, hacia Laudio en los tramos comprendidos entre los pozos nuevos a construir.

**Afecciones al tráfico**
Como consecuencia, estas obras van a provocar alteraciones del tráfico rodado en el carril de bajada y subida desde el cruce de Zumalakarregi y para poder regular esta situación, se va a habilitar un control mediante semáforos.




## Informazio-oharra: Nerbioiko Parke linealaren zatia ixtea, autoeskolatik Markijanako pasabidera, obrengatik

Maiatzaren 24tik aurrera, Nerbioiko etorkizuneko araztegirako hondakin-hodi biltzailea eraikitzeko lanak direla eta, Nerbioiko Parke linealaren zatia itxi egingo da bi hilabetez gutxi gorabehera, autoeskolatik Markijanako pasabidera.

Obraren ardura duen enpresak behar bezala seinaleztatuko du itxiera.

## Nota informativa: Cierre del tramo del Parque Lineal del Nervión, desde la autoescuela a la pasarela de Markijana, por obras

Desde el 24 de mayo, debido a las obras de construcción del colector de residuales para la futura depuradora del Nervión, se va a cerrar por aproximadamente dos meses el tramo del Parque Lineal del Nervión que va desde la autoescuela a la pasarela de Markijana.

El cierre será debidamente señalizado por parte de la empresa responsable de la obra.

## Nerbioi Garaian Caritaseko Enplegu Agentzia

Duela gutxi, Caritaseko Lan Bila Enplegu Agentziak Aiarako haranean ireki du berriro zerbitzua. Bi boluntariok lan eskatzaileei eta lan eskaintza bat egin nahi dutenei laguntzen diete, aldez aurretik hitzordua eskatuta. Boluntarioek Amurrion, Laudion eta Urduñan jasotzen dituzten lan-eskaintza eta -eskariak kudeatzeko lana koordinatuta dago Gasteizko Caritas enplegu-agentziaren egoitza nagusiarekin.

**Harremanetarako:**
Amurrio, 945 89 16 31, osteguna 10:30etik 12:30era; Urduña, 945 38 32 96, osteguna 10:30etik 12:30era eta Laudio, 94 608 42 28, osteguna 15:30etik 18:00etara. Hiru lurraldeetarako, 945 22 03 04.

## Agencia de Colocación de Cáritas en el Alto Nervión

Recientemente la Agencia de Colocación Lan Bila de Cáritas ha reabierto su servicio en el valle de Ayala. Dos personas voluntarias atienden -con cita previa- tanto a personas demandantes de empleo como a quienes desean hacer una oferta de trabajo. La labor de gestión de las ofertas y demandas de empleo que recogen las voluntarias en Amurrio, Llodio y Orduña está en coordinación con la sede central de la agencia de colocación de Cáritas en Vitoria-Gasteiz.

**Contacto:**
Amurrio, 945 89 16 31, jueves de 10:30 a 12:30; Orduña, 945 38 32 96, jueves de 10:30 a 12:30 y Llodio, 94 608 42 28, jueves de 15:30 a 18:00. También, para los tres territorios, 945 22 03 04.

## Laudio HAZIk HUB Digitala eta udalerriko industria-enpresa txiki eta ertainentzako orientazio-bulego bat estreinatu ditu

Laudioko Udalak, Laudioko HAZI Tokiko Garapen Agentziaren bidez, udalerriko industria-enpresentzako orientazio-bulego bat inauguratu berri du, digitalizazio-prozesuetan laguntzeko.

Hub Digitalak enpresen ideiak eta beharrak jasoko ditu, eta ebaluatu egingo ditu, gara daitezkeen proiektuen garapenari buruz aholkatzeko eta hura kudeatzeko. Beraz, Laudioko enpresekin hurbileko zerbitzu proaktibo bat da, bisita-plan bat duena. Proiektu horri esker, proiektuak bideratu ahal izango dira arrakasta izateko behar den prozedura eta euskarriarekin, hau da, ekimenak abiaraziko dira dauden laguntzen eta diru-laguntzen leihoak kontuan hartuta.

Datozen hilabeteetan hainbat bisita egingo dira enpresetara, haien beharrak ezagutu eta lagundu ahal izateko. Halaber, webinar-ak eta aurrez aurreko jardunaldiak zehaztuko dira zerbitzu berri horri buruzko informazioa emateko, eta aurkezpen bat egingo da Arabako hornitzaile teknologikoak ezagutarazteko. Azkenik, abiapuntu gisa, Laudioko enpresa txiki eta ertainen digitalizazioaren egoerari buruzko azterlan bat egingo da.

**Merkataritza Gaitasunen Eskola**
Digital Hub-az gain, Laudio Hazik gaitasun komertzialen eskola bat jarriko du abian, udalerriko enpresa industrialak merkatuan dauden tresna komertzial eguneratuenetan trebatu eta langileak birziklatu ahal izateko. Aldi berean, enpresa txiki eta ertainak merkataritza-prozesuaren, kudeaketaren eta plangintzaren garrantziaz sentsibilizatzea bilatzen da.

Horretarako, datozen hilabeteetan, 2021erako prestakuntza-ekintzak definituko dira, merkataritza-arloko proiektu sinergikoak identifikatzeaz gain, doako "check list" bat sortuko da enpresen eskura, hobetzeko ekintzak ebaluatu, diagnostikatu eta proposatzeko.

Bi ekimenak, Hub digitala eta merkataritza gaitasunen eskola, posible izango dira Laudioko Udalak eta Arabako Merkataritza Ganberak sinatutako lankidetza-hitzarmen bati esker.

## Laudio HAZI estrena el Digital Hub y una oficina de orientación para las pymes industriales del municipio

El Ayuntamiento de Laudio, a través de Laudio HAZI, acaba de inaugurar una oficina de orientación destinada a las empresas industriales del municipio, para ayudarlas en sus procesos de digitalización.

El Digital Hub recogerá ideas, necesidades de las empresas y las evaluará, para asesorar y gestionar el desarrollo de los distintos proyectos que puedan desarrollarse. Se trata, por tanto, de un servicio proactivo y cercano con las empresas de Laudio y dotado de un plan de visitas. Gracias a este proyecto, se podrán encauzar proyectos con el procedimiento y soporte necesarios para su éxito, es decir, se lanzarán iniciativas contando con las ventanas de ayudas y subvenciones existentes.

A lo largo de los próximos meses se llevarán a cabo diversas visitas a las empresas para conocer sus necesidades y poder ayudarlas. Asimismo, se definirán webinars y jornadas presenciales para ofrecer información sobre este nuevo servicio y se realizará una presentación para dar a conocer a los proveedores tecnológicos de Álava. Finalmente, y como punto de partida, se va a realizar un estudio sobre la situación de la digitalización en las pymes de Laudio.

**Escuela de Habilidades Comerciales**
Además del Digital Hub, Laudio HAZI va a poner en marcha una escuela de habilidades comerciales para que las empresas industriales del municipio puedan formarse y reciclar a sus empleados en las herramientas comerciales más actuales que existan en el mercado. Al mismo tiempo, se busca sensibilizar a las pymes de la importancia del proceso comercial, su gestión y su planificación.

Para ello, durante los próximos meses se van a definir las acciones formativas para el 2021, además de identificar proyectos sinérgicos en el ámbito comercial y crear un `check list´ gratuito a disposición de las empresas para evaluar, diagnosticar y proponer acciones de mejora.

Ambas iniciativas, el digital Hub y la escuela de habilidades comerciales, van a ser posibles gracias a un convenio de colaboración existente entre el Ayuntamiento de Laudio y la Cámara de Comercio de Álava.

## Ellakuriko Udal Igerilekuak ekainaren 19an irekiko dira

Irailaren 12ra arte (igandea) egongo dira zabalik, eta harpidedun txartela maiatzaren 24tik uztailaren 23ra arte eskuratu ahal izango da Lamuza-Granjako kiroldegian bertan; uztailaren 23tik aurrera, berriz, igerilekuetako instalazioetan bertan egingo da sarbide-agiria.

## Las Piscinas Municipales de Ellakuri se abrirán el 19 de junio

Estarán disponibles hasta el domingo 12 de septiembre, y se podrá obtener el carnet de abonado desde el 24 de mayo hasta el 23 de julio, en el polideportivo de Lamuza-Granja. A partir del 23 de julio el documento de acceso se expedirá en las instalaciones de las piscinas.

### ALDI BATERAKO BAIMENA PASE TEMPORAL

| KUOTAK / CUOTAS | Ekainaren 19etik Irailaren 12ra / Desde el 19 de junio al 12 de septiembre | Uztailaren 17tik Irailaren 12ra / Desde el 17 de julio al 12 de septiembre | Abuztuaren 14etik Irailaren 12ra / Desde el 14 de agosto al 12 de septiembre |
|---|---|---|---|
| Familiak 14 urte arteko seme-alabekin / Familias con hijos hasta 14 años | 39,95€ | 26, 65€ | 13,30€ |
| ERROLDATUGABEAK NO EMPADRONADOS | 49,95€ | 33,30€ | 16,65€ |
| 18 urtetik gorakoak / Más de 18 años | 29,75€ | 19,85€ | 9,90€ |
| ERROLDATUGABEAK NO EMPADRONADOS | 37,20€ | 24,80€ | 12,40€ |
| 14 urtetik 17ra / De 14 a 17 años | 19,60€ | 13,05€ | 6,55€ |
| ERROLDATUGABEAK NO EMPADRONADOS | 24,50€ | 16,30€ | 8,20€ |
| 5 urtetik 13ra / De 5 a 13 años | 11,65€ | 7,75€ | 3,90€ |
| ERROLDATUGABEAK NO EMPADRONADOS | 14,55€ | 9,70€ | 4,90€ |
| 5 urte baino gutxiago Menores de 5 años | DOAN GRATUITO | | |

### EGUNEROKO SARRERA ENTRADA DIARIA

| | Lanegunak Laborables | Jaiegunak Festivos |
|---|---|---|
| 18 urte baino gehiago Más de 18 años | 3,20€ | 4,20€ |
| 14 urtetik 17ra 14 a 17 años | 1,65€ | 2,70€ |
| 5 urtetik 13ra 5 a 13 años | 1,05€ | 1,65€ |
| 5 urte baino gutxiago Menores de 5 años | Doan | Gratuito |

**Ordainketak egin ahal dira Kiroldegian bertan, kreditu txartelaren bidez, edo:** Los pagos se pueden realizar en el Polideportivo, mediante tarjeta de crédito o en:

| | |
|---|---|
| **KUTXABANK** 08:30etatik 10:30era De 08:30 a 10:30 | 2095 3264 10 1090956912 |
| **CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXAN** Goizez Por la mañana | 3035 0045 21 0450037009 |

**UDA 2021 VERANO**

### ELLAKURIKO IGERILEKUAK PISCINAS DE ELLAKURI

**Irekiera** /Apertura:
**Ekainak 19** Junio - **Irailak 12** Septiembre

**Ordutegia** /Horario:
**11:00 - 20:00 Astelehenetik, igandera** / Lunes a domingo

OFFICIAL PREPARATION CENTRE
LANGUAGE SCHOOL
OXFORD
llodio@oxfordls.com
@oxfordlaudio
Virgen del Carmen 11 · Laudio

# Kirol ikastaroak Laudiora itzuliko dira, gustu guztietarako eskaintza berri eta hobetuarekin

Gimnasia, pilates, aerobic, zumba, yoga, taichi, gap, aerostep, uretako fitness, kid gym eta combat gym dira ekainaren 14tik abuztuaren 31ra bitartean herritarrek izena eman ahal izango duten diziplinetako batzuk.

# Los cursillos deportivos regresan a Laudio con una nueva y mejorada oferta para todos los gustos

Gimnasia, pilates, aerobic, zumba, yoga, taichi, gap, aerostep, fitness acuático, kid gym y combat gym son sólo algunas de las disciplinas a las que se podrán inscribir las y los vecinos, desde el 14 de junio hasta el 31 de agosto.

**Udalak ikastaro bakoitzean eskainitako plaza kopurua murrizteko eskubidea du, osasun-egoeraren bilakaeraren arabera.**
**El Ayuntamiento se reserva el derecho a reducir el número de plazas ofrecido en cada curso, en función de la evolución de la situación sanitaria**

## 16 urtetik aurrera IKASTAROAK CURSILLOS a partir de 16 años

### MANTENTZE SOINKETA GIMNASIA DE MANTENIMIENTO

| | | | |
|---|---|---|---|
| 2.solairua 2ª planta | al-az-or l-mi-v | 9:30-10:25 (30plz) | |
| 2.solairua 2ª planta | ar-og m-j | 9:30-10:25 (30plz) | 3ªedad 60+ |
| 2.solairua 2ª planta | ar-og m-j | 10:30-11:25 (30plz) | 3ªedad 60+ |
| GARDEA GARDEA | al-az-or l-mi-v | 11:00-12:00 (15plz) | |

### PILATES MAT - FITNESS

| | | |
|---|---|---|
| 2.solairua 2ª planta | al-az-or l-mi-v | 10:30-11:25 (30plz) |
| 2.solairua 2ª planta | ar-og m-j | 12:30-13:25 (30plz) |
| 2.solairua 2ª planta | al-az l-mi | 18:00-18:55 (10plz) |
| 1.solairua 1ª planta | ar-og m-j | 19:00-19:55 (10plz) |
| GARDEA GARDEA | ar-og m-j 11:00-12:00 or-v 9:00-10:00 | (15plz) |

### AEROBIC

| | | |
|---|---|---|
| GARDEA GARDEA | al-az-or l-mi-v | 10:00-11:00 (15plz) |

### AEROSTEP

| | | |
|---|---|---|
| 2.solairua 2ª planta | al-az-or l-mi-v | 19:30-20:25 (10plz) |

### ZUMBA

| | | |
|---|---|---|
| 2.solairua 2ª planta | al-az-or l-mi-v | 12:30-13:25 (30plz) |
| 2.solairua 2ª planta | ar-og m-j | 20:30-21:25 (10plz) |
| GARDEA GARDEA | ar-og m-j | 10:00-11:00 (15plz) |

### GAP

| | | |
|---|---|---|
| 2.solairua 2ª planta | al-az-or l-mi-v | 11:30-12:25 (30plz) |
| 2.solairua 2ª planta | al-az-or l-mi-v | 20:30-21:25 (10plz) |
| 2.solairua 2ª planta | ar-og m-j | 11:30-12:25 (30plz) |

### YOGA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 2.solairua 2ª planta | al-az l-mi | 10:00-11:25 (15plz) | |
| 1.solairua 1ª planta | al-az l-mi | 19:00-20:25 (15plz) | |
| 2.solairua 2ª planta | ar-og m-j | 15:00-16:25 (15plz) | |
| 2.solairua 2ª planta | ar-og m-j | 16:30-17:55 (15plz) | |
| 2.solairua 2ª planta | al-az l-mi | 11:30-12:55 (15plz) | 3ªedad 60+ |

### TAI-CHI

| | | |
|---|---|---|
| 1.solairua 1ª planta | al-az l-mi | 20:30-21:25 (15plz) |
| 2.solairua 2ª planta | ar-og m-j | 18:00-18:55 (15plz) |

### COMBAT GYM

| | | |
|---|---|---|
| 2.solairua 2ª planta | al-az-or l-mi-v | 17:00-17:55 (30plz) |

### FITNESS ACUÁTICO

| | | |
|---|---|---|
| IGERILEKU HANDIA PISCINA GRANDE | al-az-or l-mi-v | 13:30-14:25 (10plz) |
| IGERILEKU TXIKIA PISCINA PEQUEÑA | ar-og m-j | 13:30-14:25 (10plz) |

### KIDS GYM

| | | |
|---|---|---|
| 1.solairua 1ª planta | al-az-or l-mi-v | 18:00-18:55 (15plz) De 7 a 12 años |

### Hiruhilekoa PREZIOAK PRECIOS Trimestre

| | |
|---|---|
| 3 ordu 3 horas | 26,15€ |
| Ez erroldatua No empadronado | 32,70€ |
| 2 ordu 2 horas | 17,45€ |
| Ez erroldatua No empadronado | 21,80€ |






## UDALEKUAK 2021 programa aurkeztu du udalak

Uda honetan itzuliko da Laudiora UDALEKUAK programa, aisialdiaren esparruko gizarte- eta hezkuntza-gune gisa. Programa horren bidez, gazteek elkartzeko, harremanak izateko eta jolasteko leku bat izango dute udan, beren nortasuna garatzen laguntzeko; ez da jolasteko eta aisialdia igarotzeko gune bat soilik, hezkuntza-arloko esku-hartze bat ere egingo da, eta garapenean esku hartzen duten beste eragile batzuek ere parte hartuko dute bertan.

Proiektuaren helburua udalerriko 10 eta 16 urte bitarteko gazteei aisialdiko gizarte eta hezkuntza baliabide bat eskaintzea da. Beraz, ekintza eta jarduera guztiak adin-tarte horri dagokion eboluzio-unera egokitu behar dira, neska-mutil guztiek erraz asimilatzeko eta gauzatzeko.

Horretarako, helburu orokor batzuk ezarri dira, udalekuen programaren funtzionamendua bideratuko dutenak; besteak beste, gazteen garapen pertsonala eta soziala bultzatuko dugu, aisialdiko eta denbora libreko esku-hartzeen alderdi hezitzaile-ludikoa bultzatzeaz gain. Era berean, ekimen honen helburua da inguruneko baliabide fisikoak eta sozialak ezagutzea eta aprobetxatzea, oraingo eta etorkizuneko ondare gisa, eta, aldi berean, balioetan oinarritutako hezkuntzaren transmisioa eta aisialdian eta denbora librean euskararen erabilera erraztea.

**Izen-ematea eta datak**

Erabiltzaileei eta jarduera-programari lotutako helburu espezifiko horiez gain, badira aipamen berezia merezi duten beste hiru alderdi ere: familiekin lotutako helburuak, udalerria bera eta jarduera-programa garatzeko ekipamenduak.

UDALEKUAK 2021 programa 5 astetan zehar garatuko da, ekainaren 28tik uztailaren 30era, astelehenetik ostiralera, 09:30etik 13:30era, aste eta plaza bakoitzeko bost euroko prezioan. Pertsona bakoitzak nahi duen astean izena eman dezake, ekainaren 1etik 15era, 944 034 850 telefonoan eta/edo hezkuntza@laudio.eus posta elektronikoaren bidez. Izen-emateak plaza-kopurua gainditzuz gero, zozketa egingo da.

## El Ayuntamiento presenta el programa UDALEKUAK 2021

Este verano regresa a Laudio el programa UDALEKUAK como un espacio socioeducativo en el ámbito del tiempo libre, que proporcionará a las personas jóvenes un lugar de encuentro, relación y juego en verano favoreciendo el desarrollo de su personalidad; no se trata única y exclusivamente de un espacio para jugar y pasar el tiempo de ocio, también se realizará una intervención educativa en el que participen otros agentes que intervienen en su desarrollo.

El proyecto tiene como objetivo ofrecer a las personas jóvenes de 10 a 16 años del municipio un recurso socioeducativo en el tiempo libre. Por lo que, todas las acciones y actividades se han de ajustar al momento evolutivo que corresponde a esa franja de edad, para una fácil asimilación y ejecución por parte de todos y todas las niñas.

Para llevarlo a cabo, se han marcado una serie de objetivos generales que orientarán el funcionamiento del programa de colonias, entre los que se encuentran favorecer el desarrollo personal y social de las personas jóvenes, además de potenciar la faceta educativo-lúdica de las intervenciones en el ocio y tiempo libre. Asimismo, con esta iniciativa se pretende conocer y aprovechar los recursos físicos y sociales del entorno como patrimonio presente y futuro a la vez que se facilita la transmisión de la educación en valores y el uso del euskera en el ocio y tiempo libre.

**Inscripciones y fechas**

Además de estos objetivos específicos vinculados a las personas usuarias y el programa de actividades, existen otros tres aspectos que merecen una mención especial como son los relacionados con las familias, el municipio y los equipamientos donde se desarrolla el programa de actividades.

El programa UDALEKUAK 2021 se desarrollará a lo largo de 5 semanas desde el 28 de junio hasta el 30 de julio, de lunes a viernes en horario de 9.30 a 13.30 horas, con un precio de cinco euros por semana y plaza. Cada persona se puede apuntar las semanas que quiera desde el 1 al 15 de junio en el teléfono 944 034 850 y/o a través del correo electrónico hezkuntza@laudio.eus y en caso de que las inscripciones superen el número de plazas, se realizará un sorteo.




## Uztaila eta iraileko ikastaroak Laudioko udal euskaltegian

NOIZ: Uztailaren 1etik 28ra eta irailaren 2tik 29ra (2 ikastaro )
IRAUPENA: 100 ordu / astelehenetik ostiralera 5 ordu egunean.
PREZIOA: 120,85 €
DIRU-LAGUNTZAK: Bai, ikastaro guztiek udalaren eta Haberen diru-laguntza eskuratzeko aukera dute.
MATRIKULATZEKO EPEA: Ekainaren 21era arte.
IZENA EMATEKO: 946722838 – 946722200, euskaltegia@laudio.eus edo Euskaltegian bertan (Lamuzako Parkean gaude, Kultura Etxean).

Gogoratu iraileko ikastaroa egiteko matrikula ekainean egin behar dela, abuztuan euskaltegia itxita egongo da eta. Covid-19aren transmisioa ekiditeko neurriak hartzen jarraituko dugu, egoerara moldatzeak egokitzapenak ekar ditzake.

## Cursos de euskera en julio y septiembre en el euskaltegi municipal

CUÁNDO: Del 1 al 28 de julio y del 2 al 29 de septiembre (2 cursillos)
DURACIÓN: 100 horas / 5 horas diarias de lunes a viernes.
PRECIO: 120,85 €
SUBVENCIONES: Sí, todos los cursos tienen posibilidad de recibir subvenciones tanto de HABE como municipales.
PLAZO DE INSCRIPCIÓN: Hasta el 21 de junio.
PARA MATRICULARSE: 946722838 – 946722200, euskaltegia@laudio.eus o en el Euskaltegi (Parque de Lamuza, Casa de Cultura).

Recuerda que la matrícula para el cursillo de septiembre hay que realizarla en junio, puesto que en agosto el euskaltegi permanecerá cerrado. Se seguirán manteniendo todas las medidas para evitar la transmisión de la Covid-19, adecuarnos a la situación puede acarrear alguna adaptación.

## Laudioko 'txakurgune' sare berriaren diseinuari ekin dio udalak herritarrekin batera

Laudioko Udalak txakurrentzako aisialdirako hainbat gune jarriko ditu herriko parke eta gune ezberdinetan, horretarako, ezarritako ordutegi eta arauak dituzten kartelak jarriko dira. Gune horietan, txakurrak aske egon daitezke, uhalik erabili gabe.
Animalien jabeek edo laguntzaileek animaliak babesteko eta edukitzeko Ordenantzaren baldintza guztiak bete beharko dituzte, eta, bereziki, azpimarratu nahi da animalien gorotzak behar bezala bildu eta utzi beharko direla zakarrontzietan. Bestalde, animaliak etengabe kontrolatu beharko dira eta arriskutsuak izan daitezkeen txakurrek ezin izango dituzte gune horiek erabili.

Halaber, aisialdirako gune bakoitza informazio-kartelen bidez seinaleztatuta dago, eta gune bakoitzak behar bezala adierazitako ordutegia izango du. Era berean, gune garrantzitsuenetako bat da gune horietako bakoitzean eskaintzen diren zerbitzuak pixkanaka hobetzen joango direla, horietan guztietan txakurren ongizaterako oinarrizko zerbitzuak, edateko ura, zakarrontziak eta atsedenlekuak egon daitezen.

## El Ayuntamiento aborda junto con la ciudadanía el diseño de la nueva red de `txakurgunes´ de Laudio

El Consistorio laudioarra va a habilitar diversas zonas de esparcimiento para perros en diferentes parques y zonas del municipio, para ello, se instalarán carteles con los horarios y normas establecidas. En estos espacios, los canes podrán estar sueltos sin necesidad de utilizar correa.
Las personas propietarias o acompañantes de los animales deberán cumplir los términos de la Ordenanza de protección y tenencia de animales, y, en especial, se quiere hacer hincapié en que los excrementos de los animales deberán ser recogidos y depositados correctamente en las papeleras. Por otro lado, se realizará un control permanente de los animales y los perros potencialmente peligrosos y no podrán utilizar estas zonas.

Asimismo, cada zona de esparcimiento estará señalizada mediante carteles y cada espacio contará con un horario establecido debidamente indicado. De igual manera, uno de los puntos más importantes es que se irán mejorando paulatinamente los servicios que se ofrezcan en cada una de estas zonas, para que en todas ellas se cuente con servicios básicos como agua para el bienestar de los perros, papeleras y zonas de descanso.

### LAUDIOKO 'TXAKURGUNE' SAREAREN PROPOSAMENA PROPUESTA DE RED DE `TXAKURGUNES´ DE LAUDIO

- **LAMUZA PARKEA** | Parque Lamuza, **3.175m2**
  **24 ordu** horas
- **ARRAÑO MENDIA** | Monte Arraño, **17.800m2**
  **24 ordu** horas
- **SAGASTI** | El Manzanal, **1.420m2**
  **24 ordu** horas
- **BIDE ZAHAR** | Caminos Viejos, **1.230m2**
  **19:00etatik 8:00etara**
- **ARETA** | Areta, **1.645m2**
  **24 ordu** horas
- **LATIORRO** | Latiorro, **1.381m2**
  **24 ordu** horas
- **GARDEA** | Gardea, **1.103m2**
  **24 ordu** horas
- **IRUKURUTZETA** | Tres Cruces, **950m2**
  **19:00etatik 8:00etara** De 19:00 a 8:00
- **LANDALUZE** | Landaluze, **1.310m2**
  **20:00etatik 8:00etara** De 20:00 a 8:00

### Parte-hartze prozesua

Laudioko txakurgune sareko puntu bakoitzak izango dituen beharrak eta ezaugarriak diseinatu ahal izateko, udalak parte-hartze prozesu bat jarriko du martxan, herritarrek ekarpenak egin ditzaten. Zakarrontziak, txakur-hondakinen poltsak eta jolasguneak ere izan ditzakete espazio horiek.

Parte hartu nahi dutenek https://www.laudio.eus/eu/parte-hartzea/parte-hartu-txakurguneak webgunean argitaratutako inprimakia bete ahal izango dute, baita udaletxeko hallean jarri den postontziaren bidez ere.

### Proceso participativo

Para poder diseñar las necesidades y características con las que contará cada punto de la red de txakurgunes de Laudio, el Ayuntamiento va a poner en marcha un proceso participativo para que las vecinas y vecinos puedan realizar sus aportaciones, ha indicado el concejal delegado. Unos espacios que podrán contar con papeleras, bolsas de residuos caninos e incluso zona de juegos.

Las personas interesadas en participar podrán rellenar el formulario publicado en la web: https://www.laudio.eus/es/ciudadania/participacion-ciudadana/participa-txakurgunes y también a través del buzón que se ha instalado en el hall del ayuntamiento.

rotulosnervion.es
946 72 77 22
mucho + que rótulos




30.014m2